

## Dave Douglas Heineken Jazzaldiaren programan

### John Nemeth-ek Heineken Agertoki Berdean joko du Zapp-en ordez

Dave Douglas tronpetari ezaguna, jazz garaikideko izar nagusietako bat, 51. Heineken Jazzaldiaren programara gehitu da, uztailaren 21ean, 19:30ean, Frigo Gunean eskainiko duen kontzertuarekin.

Douglas, oraingoan, High Risk laukotearen buruan dator, Shigeto (elektronika), Jonathan Maron (baxu elektrikoa, baxu sintetizatua) eta Ian Chang (bateria) lagun dituela. Jazza eta musika elektronikoa fusionatzen dituzten joera modernoenen abangoardian kokatzen da High Risk laukotea.

Dave Douglas bi eta hiru aldiz baino gehiagotan izan da Heineken Jazzaldian, zehazki, 1994, 2002, 2009, 2011 eta 2013ko edizioetan. Mota guztietako formazioetan hartu du parte, batzuetan lider modura, eta proiektu koralagoetan beste batzuetan (Tea for 3 deituan, adibidez, Enrico Rava eta Avishai Cohen tronpetariarekin) eta argi utzi du nonahi jotzeko gai dela.

Bestalde, John Nemeth & The Blue Dreamers Heineken Agertoki Berdean ariko dira uztailaren 21ean, 24:00etan. Zapp-ek utzitako hutsunea beteko dute, hark laburtu egin baitu Europan egitekoa duen bira. Zurriolako hondartzako agertoki printzipalean emango duen kontzertu honetarako, taldeak bi haize-instrumenturen laguntza gehigarria izango du. John Nemeth amerikar soul-blueseko izen ospetsuenetakoa da.

### Dave Douglas & High Risk

**Dave Douglas** (tronpeta), **Shigeto** (elektronika), **Jonathan Maron** (baxu elektrikoa, baxu sintetizatua), **Ian Chang** (bateria)

### John Nemeth & The Blue Dreamers

**John Nemeth** (harmonika, ahotsa), **Daniel Banks** (bateria, koruak), **Mathew Wilson** (baxua, gitarra, koruak), **Johnny Rhoades** (gitarra, koruak). Musikari gonbidatuak: **Martín García Duque** (saxoa), **Josué García Duque** (tronpeta)